



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko otsailaren 20a

30. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Izarreibarko Mankomunitateari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak
egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Izarbeibarko Mankomunitateari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Izarbeibarko Mankomunitateari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Izarbeibarko Mankomunitateari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Erakundearen deskribapena eta aplikatzekoa den araudia (3. or.).

II.1. Datu orokorrak (3. or.).

II.2. Aplikatzekoa den araudia (4. or.).

III. Helburuak eta norainokoa. (5. or.).

IV. Iritzia (5. or.).

IV.1. Izarbeibarko Mankomunitatea (5. or.).

IV.2. Arga Valdizarbe, SL zerbitzu-sozietatea (7. or.).

V. 2012ko kontu orokorraren egoera-orriak (8. or.).

V.1. Izarbeibarko Mankomunitatea (8. or.).

V.2. Arga Valdizarbe, SL zerbitzu-sozietatea (12. or.).

VI. Izarbeibarko Mankomunitateari buruzko ondorioak eta gomendioak (13. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak. (13. or.).

VI.2. Langile gastuak (14. or.).

VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (15. or.).

VI.4. Inbertsioak (15. or.).

VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (16. or.).

VII. Arga Valdizarbe, SL zerbitzu-sozietate publikoari buruzko ondorioak eta gomendioak (17. or.).

VIII. Gesterlar Siglo XXI, SL sozietateari buruzko ondorioak eta gomendioak (18. or.).

I. SARRERA

Izarbeibarko Mankomunitateko Batzar Nagusiak 2013ko ekainaren 13an egindako eskariari erantzuteko egin da Izarbeibarko Mankomunitatearen fiskalizazioa. Eskari hori betetzeko, Kontuen Ganberaren 2013ko lan-programan sartu zen Mankomunitatearen 2012ko kontuen fiskalizazioa

Azterketa-lana 2013ko azaroan eta abenduan egin da.

Txostenak zortzi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarreanean, fiskalizazioaren xede den entitatearen deskribapen bat egiten da, eta hari aplikatzekoa den araudia aipatzen da; hirugarren atalean, egindako lanaren helburuak eta norainokoa azaltzen ditugu. Laugarreanean, Mankomunitatearen eta haren sozietatearen kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu. Kontuaren laburpenak bosgarren atalean ageri dira. Seigarren, zazpigarren eta zortzigarren ataletan iruzkinak, ondorioak eta gomendioak ematen ditugu, gure ustez egokiak direnak Mankomunitatearen eta hark parte hartutako sozietateen antolamendua eta barne kontrola hobetzeko.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Mankomunitateko eta Arga Valdizarbe, SL zerbitzu-sozietateko langileei.

II. ERAKUNDEAREN DESKRIBAPENA ETA APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

II.1. DATU OROKORRAK

Izarbeibarko Mankomunitatea honako zerbitzuak emateko helburuarekin sortutako toki entitate bat da: uraren hornidura, saneamendua eta arazketa (uraren ziklo integrala); ziklo horri eusteko azpiegituren mantentzea eta hobekuntza; hiri hondakin solidoen bilketa, garraioa eta tratamendua; eta ingurumenari buruzko hezkuntza. Batetik, Arga Izarbeibar Zerbitzuen Mankomunitatea, hondakinen kudeaketarako sortua, eta, bestetik, Izarbeibarko Ur Mankomunitatea, uraren ziklo integralaren ardura zuena, 1999. urtearen amaieran batera biltzearen emaitza da Izarbeibarko Mankomunitatea.

Egoitza ofiziala Garesen du eta honako herriek osatzen dute: Artazu, Etxarren, Obanos, Gares, Zirauki, Mañeru, Gesalazko Udala, Getze, Mendigorria, Artaxoa, Berbintzana, Larraga eta Miranda Arga.

Gaur egun, uraren ziklo integratuaren barruan dauden toki entitateek 9.850 biztanle dituzte; goi presioko ur horniduraren zerbitzua hartzen duten herriek 2.1452 biztanle dituzte, eta hiri hondakin solidoen zerbitzua hartzen dutenek 11.513 biztanle dituzte.

Mankomunitatearen gobernua eta administrazioa Batzar Nagusiari dagozkio; haren organo nagusiak lehendakaria eta Batzorde Iraunkorra dira.

Mankomunitateak ematen dituen zerbitzuak kudeatzeko, Mankomunitateak berak "Servicios Arga Valdizarbe, SL" izeneko sozietate publikoa sortu zuen, zeinak jarduera nagusi gisa baititu uraren zerbitzu integrala (uren hornidura eta saneamendua) eta hiri hondakin solidoen bilketa-eta tratamendu-zerbitzuak.

Sozietate horrek bere gastu guztiak Mankomunitatearen esku uzten ditu, eta azken hori da aipatutako zerbitzuen truke diru-sarrerak lortzen dituen, erabiltzaileei kobratzen dizkien tasen eta prezio publikoen bitartez.

Halaber, Izarbeibarko Mankomunitate eta Larragako Udala, bakoitzak % 50 duela, Gesterlar Siglo XXI, SLren bazkidean dira, 2009ko apiriletik. Sozietate horren xede soziala da hondakinen kudeaketarako zentro bat sortzea. 4.000 euroko kapital soziala dauka eta oraindik ere ez du dagokion sozietate motari (sozietate mugatua) dagokion nortasun juridikoa eskuratu. Sortzen ari den sozietate baten estatusa dauka.

Honako hauek dira 2011ko abenduaren 31ko kopuru ekonomiko aipagarrienak:

Entitatea	Zenbatekoa (euroak)		Langileak, 2012-12-31n
	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	
Izarbeibarko Mankomunitatea	2.615.715	3.759.949	2

Entitatea	Gastuak	Diru-sarrerak	Langileak, 2012-12-31n

2012ko abenduaren 31n, Mankomunitatean idazkari batek eta kontu-hartzaile batek betetzen dituzte mankomunitateko udalen idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako lanak; sozietatean, berriaz, 26 pertsonak osatzen dute langileria: gerente bat, lan administratiboetan diharduten lau pertsona, uraren zikloarekin lotutako zerbitzua emateko 10 pertsona eta hondakinen zerbitzuarekin lotutako 11 pertsona.

II.2. APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

2012an zehar, Izarbeibarko Mankomunitateak bete beharreko oinarritzko araudia nagusiki honako lege eta erregelamendu hauek osatzen dute:

6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.

2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.

Nafarroako toki administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitate instrukzio orokorra onesteari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak, hurrenez hurren.

Aurrekontu-betetzearen egoera-orria

Mankomunitateko Estatutuak.

Prezio publikoak eta tasak ezartzeko akordioak eta ordenantzak.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak, 6/1990 Foru Legea toki-kontratazioari dagozkionetan aldatzen duenak, ezarritako berezitasunekin.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.

Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.

Lurralde antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea.

38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa.

Arga Valdizarbe, SL eta Gesterlar Siglo XXI, SL zerbitzu-sozietateek beren estatutuak dauzkate arau, bai eta arlo zibileko, merkataritza-alorreko eta lan alorreko kasuko araudia ere; honakoek osatzen dute araudi hori, besteak beste:

1515/2007 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 16koa, zeinaren bidez onesten baita Enpresa Txiki eta Ertaintzako Kontabilitate Plan Orokorra.

1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, zeinaren bitartez onesten baita Kapitaleko Sozietateei buruzko Legearen testu bategina.

III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA.

Mankomunitatearen eskaria betez eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Izarbeibarko Mankomunitatearen eta hark parte hartutako sozietateen 2012ko ekitaldiko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren xedea da gure iritzia ematea hurrengo gaiei buruz:

- Ea Izarbeibarko Mankomunitateak eta Arga Valdizarbe, SL zerbitzu-sozietateak 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak bere alderdi nagusi guztietan behar bezain irudi doia erakusten duen, 2012o abenduaren 31n, ondareari, finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta ekonomia-emaizari buruz, eta ea aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz prestatu den.

- Mankomunitateak eta hark parte hartutako sozietateak 2012ko finantza-jardueran legea bete duten.

- Izarbeibarko Mankomunitatearen 2012ko egoera finantzarioa.

Fiskalizazioaren norainokoa honakoa izan da:

- Mankomunitatearen kontu orokorrak honako egoera-orri aipagarriak dauzka: aurrekontuaren betetzeari buruzko egoera-orria, aurrekontu-emaizta, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzaitzaren txostena.

- Arga Valdizarbe, SL zerbitzu-sozietatearen kontua.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarraren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

IV. IRITZIA

Ondoren, 2012ko ekitaldi buruzko gure iritzia ematen dugu, arauzkotasunari buruz, lanaren norainokoaren arabera, Mankomunitatean eta Arga Valdizarbe, SL zerbitzu-sozietatean egin dugun fiskalizazioari erreparatuta.

IV.1. IZARBEIBARKO MANKOMUNITATEA

IV.1.1. 2012ko kontu orokorra

Ez dago ondasunen inbentariarik, ibilgetu materialaren eta ez-materialaren kontabilitate balioak oinarritzen dituenik -23.235.287 euro eta 303.747 euro dira 2012ko abenduaren 31n, hurrenez hurren-. Kontabilitate-balio horiek ez daude behar bezala amortizatuta.

Ez da kontuan hartu finantzaketa positiboaren 21.953 euroko desbideratzea, zeina lotuta baitago 2012an Nafarroako Gobernuak Artazuko sare batzuen berritzea finantzatzeko emandako diru-laguntza batekin. Inguruabar horrek bere ondorioa izanen du aurrekontu-emaizta doituari, zeinak kopuru hori beheratu behar baitu.

Zenbait akats antzeman dira diruzaintza-gerakinaren kalkuluan. Akats horiek VI.1 atalean zehaztu ditugu, eta berarekin dakarte kontabilitateko egoera-orri horretan ageri den zifrak beste 55.360 euro bildu beharko lituzkeela.

Ogasunak ikuskaritza bat egin zuen BEZa zela eta, eta haren emaitza izan zen Mankomunitateak 440.544 euro zor zizkiola. Kopuru hori ekitaldiko galera berezi baten gisara kontabilizatu zen, nahiz eta kopuru horren zati bat balantzeko ibilgetuaren saldoa handitzeko erabili behar zen.

Arestian aipatutako salbuespenen ondorioak alde batera utzita, Mankomunitatearen 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Hala-ber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

IV.1.2. Legezkotasuna

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke Mankomunitatearen jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioa errespetatuz egiten dela.

IV.1.3. 2012ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa

Izarbeibarko Mankomunitateak 3,5 milioi euroko hasierako aurreikuspenak dauzka, eta aurreikuspen horiek igotzen joan dira 1,55 milioi euroko aurrekontu-aldaketan bitartez (ehuneko 44ko igoera, beraz), inbertsio-gastuak egiteko eta haiek finantzatzeko. Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak bost milioi eurokoak dira.

Aitortutako betebeharrak 2,62 milioi eurokoak dira; ehuneko 52ko betetzea dute eta ordainketaren portzentajea ehuneko 90 da. Betetze apalaren arrazoa da inbertsio gastuak behin betiko kredituen ehuneko 30 baizik ez dutela egiten.

Diru-sarrerei dagokienez, aitortutako eskubideak 3,76 milioi eurokoak dira, eta ehuneko 75eko betetze-maila eta ehuneko 96ko kobrantza-portzentajea izan dute.

Zorpetze maila ehuneko zerokoa da, eta horrek bidea ematen dio Mankomunitateari zorra hartzeko; horretarako muga ehuneko 18,65 da. Gainera, Mankomunitateak ez du zor bizirik.

Aipatutako salbuespenak kontuan izan gabe, aurrekontu-emaitza doitua 1,12 milioi eurokoa da eta diruzaintzako guztizko gerakina 764.779 eurokoa da; ez dago finantzaketa atxikiarengatik gasturik.

Hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den Mankomunitatearen aurrekontu-likidazioan azken bi urteetan lortu diren adierazle nagusien bilakaera:

Adierazlea	2011	2012	Aldaketaren portzentajea
Diru-sarrerak, guztira	5.611.974	3.759.949	-33
Gastuak, guztira	5.645.225	2.615.715	-54
Diru-sarrera arruntak	1.905.136	2.030.106	7
Funtzionamendu gastuak	1.675.510	1.651.502	-1
Aurrezpen gordina	229.626	378.604	65
Finantza-karga	0	4.686	--
Aurrezki garbia	229.626	373.918	63
Kapitaleko gastuak	2.180.802	959.527	-56
Kapitaleko diru-sarrerak	1.596.859	840.231	-47
Kapital-emaitza	-262.777	770.316	-393
Finantza-aktiboaren aldaketa	320.366	889.612	178
Aurrekontu-emaitza	-33.251	1.144.234	--
Aurrekontu-emaitza doitua	149.434	1.116.164	647
Zorpetze-maila	% 0	% 0	--
Zorpetze-muga	% 12,05	% 18,65	55
Zorpetze-ahalmena	% 12,05	% 18,65	53
Zor bizia	0	0	--
Diruzaintza-gerakina, guztira	230.248	764.779	232
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	230.248	764.779	232

Arestiko datu horiek kontuan hartuz, ondoko alderdiak azpimarratu nahi ditugu:

- Guztizko diru-sarrerak ehuneko 33 egin dute behera, eta gastuek, berriz, ehuneko 54; horren arrazoi nagusia da 2012an inbertsio gutxiago egin dela, kapitaleko gastuari eta diru-sarrereko buruzko zenbatekoek erakusten duten bezala.

- Diru-sarrera arruntak ehuneko 7 igo dira; funtzionamendu-gastuak, berriz, ehuneko bat jaitsi dira.
- Aurrezki gordina 378.604 eurokoa da: 2011koarekin alderatuta, ehuneko 65 egin du gora.
- 2012ko finantza-zama 4.686 eurokoa zen, eta inbertsio-funts baten salmentan izandako galerari dagokio.
- Aurrezki garbiak 373.918 euroko balioa du; horrek esan nahi du Mankomunitatea, bere diru-sarrera arruntekin, gai dela bere funtzionamendu-gastuei eta gastu finantzarioei aurre egiteko.
- Finantza-aktiboen (inbertsio-funtsa) salmentaren ondoriozko diru-sarrerek ehuneko 178 egin zuten gora 2011koekin alderatuta, eta 889.612 eurokoak izan ziren. Hori dela eta, aurrekontu-emaizta 1,14 milioi eurokoa izatera iristen da; 2011n lortutako emaitza, berriz, negatiboa izan zen.
- Zorpetze ahalmenak, 2011koaren aldean, hobera egin du, eta bi urteetan zor bizi deuseza sortu da, aurrez aipatu dugun bezala.
- Diruzaintza-gerakinak ehuneko 232 egin du gora, batez ere aipatutako inbertsio-funtsa salztearen ondorioz.

Arga Valdizarbe, SL zerbitzu-sozietatea kontuan hartu gabe eta araudiak ezarritako doikuntzak egin gabe, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioa bete den aztertu dugu, toki korporazioei egokitutako kontabilitate nazionalaren defizita kalkulatzeko eskuliburua, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiak egindakoa, aplikatuz.

(eurotan)	
Adierazlea	Zenbatekoa
Finantzaz besteko diru-sarrerak	2.870.337
Finantzaz besteko gastuak	2.586.229
Aurrekontu-saldo ez finantzarioa (finantzatzeko ahalmena)	284.108

284.108 euroko superabit ez-finantzarioa lortzen da. Horri zor bizirik ez izatea gehituta, esan dezakegu bi printzipioak bete egiten direla.

Azken batean, Mankomunitateak finantza-egoera saneatua dauka, baina kontuan hartu beharra dago entitateak inbertsio-funts bat kitatu izana dela aurrekontu-likidazioarekin lotutako adierazle batzuen bilakaera hain positiboa izatearen arrazoia. Hartara, besterentze hori gertatu izan ez balitz, lortutako emaitzak nabarmen okerragoak izanen ziren, nahiz eta positiboak izaten jarraituko zuten.

IV.2. ARGA VALDIZARBE, SL ZERBITZU-SOZIJETATEA

IV.2.1. 2012ko kontu orokorra

Sozietatearen kontuek egoki islatzen dute, alderdi aipagarri guztietan, zein den sozietatearen 2012ko abenduaren 31ko finantza- eta ondare-egoera, bai eta data horretan amaitutako ekitaldian egindako eragiketen emaitzak ere, aplikatzekoak den finantza-informazioko arau-esparruaren arabera eta, bereziki, hartan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

IV.2.2. Legezketasuna

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke sozietatearen jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezketasun-printzipioari jarraituz egiten dela.

V. 2012ko KONTU OROKORRAREN EGOERA-ORRIAK

Izarbeibarko Mankomunitateak ez du 2012ko kontu orokor bateraturik egin; horrela, ba, finantzen egoera-orri banakako hauek erantsi ditugu:

V.1. IZARBEIBARKO MANKOMUNITATEA**V.1.1. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria**

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa (%)	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile gastuak	77.900	-6.926	70.974	28.385	40	26.618	94	1767
2. Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	1.756.697	0	1.756.697	1.621.878	92	1.423.163	88	198.715
3. Finantza-gastuak.	0	5.000	5.000	4.686	94	4.686	100	0
4. Transferentzia arruntak	8.500	0	8.500	1.239	15	1.239	100	0
5. Inbertsio errealak	1.656.000	1.552.304	3.208.304	959.527	30	908.558	95	50.969
6. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	-	0	-	0
7. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	-	0	-	0
8. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	-	0	-	0
Gastuak, guztira	3.499.097	1.550.378	5.049.475	2.615.715	51,8	2.586.229	90	251.451

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Kobratutakoa	Kobratutakoa (%)	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	0	0	0	0	-	0	-	0
2. Zeharkako zergak	0	0	0	0	-	0	-	0
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.704.195	4.500	1.708.695	1.684.529	99	1.634.493	97	50.036
4. Transferentzia arruntak	179.500	0	179.500	327.806	183	267.511	82	60.295
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	4.700	0	4.700	17.771	378	17.771	100	0
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0	-	0	-	0
7. Kapital-transferentziak	1.347.050	958.182	2.305.232	840.231	36	803.427	96	36.804
8. Finantza-aktiboak	263.662	427.339	691.001	889.612	129	889.612	100	0
9. Finantza-pasiboak	0	160.357	160.357	0	0	0	--	0
Diru-sarrerak, guztira	3.356.717	1.550.378	5.049.485	3.759.949	74	3.612.814	96	147.135

V.1.2 Aurrekontu-emaitza

Kontzeptua	2011	2012
Aitortutako eskubideak	5.611.974	3.759.949
Aitortutako betebeharrak	-5.645.225	-2.615.715
Aurrekontu-emaitza	-33.251	1.144.234
Finantzaketaren desbideratze positiboak	-150.928	-243.903
Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboa	333.613	115.781
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	100.052
Aurrekontu-emaitza doitua	149.434	1.116.164

V.1.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2012ko abenduaren 31n

Kontzeptua	2011	2012
+ Kobratzeko dauden eskubideak	1.061.566	526.941
Diru-sarreraren aurrekontua: ekitaldiko aurrekontua	330.754	147.134
Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	108.690	111.314
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	673.681	322.882
(Diru-bilketa zaileko eskubideak)	-32.615	-32.102
Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-18.944	-22.287
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.540.257	700.632
Gastuen aurrekontua: ekitaldiko aurrekontua	918.527	251.451
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	137.839	116.254
Diru-sarreraren itzulketak	887	887
(Aplikatzeko dauden gastuak)	0	0
Aurrekontuz kanpoko gastuak	483.004	332.040
+ Diruzaintzako funts likidoak	455.914	863.322
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	253.025	75.148
= Diruzaintza-gerakina, guztira	230.248	764.779
Finanzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	113.064	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	117.184	764.779

V.1.4. Egoera balantzea 2012ko abenduaren 31n

Aktiboa

Azalpena	2011	2012
Ibilgetua	23.636.260	23.542.129
Ibilgetu materiala	22.442.983	23.235.287
Ibilgetu ez-materiala	300.569	303.747
Ibilgetu finantzarioa	892.708	3.095
Zirkulatzalea	1.592.266	1.476.293
Zordunak	1.136.352	612.971
Finantza-kontuak	455.914	863.322
Aktiboa, guztira	25.228.526	25.018.422

Pasiboa

Azalpena	2011	2012
Funts berekiak	23.646.097	24.263.864
Ondarea eta erreserbak	5.493.356	5.329.435
Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	18.152.741	18.934.429
Epe luzeko hartzekodunak	0	0
Epe laburreko hartzekodunak	1.582.429	754.558
Epe laburreko zorrak	1.563.485	732.270
Aplikatzeko dauden kontusailak	18.944	22.288
Pasiboa, guztira	25.228.526	25.018.422

V.1.5. Eraitza ekonomikoa 2012ko abenduaren 31n

Ekitaldiko eraitza arruntak

ZOR			HARTZEKO		
Azalpena	2011ko zenbatekoa	2012ko zenbatekoa	Azalpena	2011ko zenbatekoa	2012ko zenbatekoa
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako izakinak	0	0
39.- Izakinen balio-galeragatiko hornidurak	0	0	39 Izakinen balio-galeragatiko hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	1.671.245	1.666.380
61 Langileria-gastuak	76.198	33.518	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	42.857	22.387
62 Gastu finantzarioak	0	4.686	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	0	0
63 Zergak	289	216	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	0	0
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpo zerbitzuak	1.592.394	1.616.528	75 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0
65 Gizarte-prestazioak	0	0	76 Transferentzia arruntak	190.999	327.806
66 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	0	0
67 Transferentzia arruntak	6.729	1.239	78 Bestelako diru-sarrerak	35	13.533
68 Kapital- transferentziak	0	0	79 Daukaten helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
69 Amortizazio eta horniduretarako hornidura, ekitaldikoa	128.593	105.502	79 Daukaten helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
800 Ekitaldiko eraitza arrunta (saldo hartzekoduna)	100.933	268.417	800 Ekitaldiko eraitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
Guztira	1.905.136	2.030.106	Guztira	1.905.136	2.030.106

Ekitaldiko eraitzak

ZOR			HARTZEKO		
Azalpena	2011ko zenbatekoa	2012ko zenbatekoa	Azalpena	2011ko zenbatekoa	2012ko zenbatekoa
80 Ekitaldiko eraitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko eraitza arrunta (saldo hartzekoduna)	100.933	268.417
82 Ezohiko eraitza (saldo zorduna)	0	440.544	82 Ezohiko eraitzak (saldo hartzekoduna)	99	0,00
83 Balore-zorroaren eraitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren eraitzak (saldo hartzekoduna)	0	0,00
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	587	0	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	8.206
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	100.445	0	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	163.921
Guztira	100.445	0	Guztira	0	163.921

V.2. ARGA VALDIZARBE, SL ZERBITZU-SOZIJETATEA

V.2.1. 2012ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

Aktiboa

Azalpena	2011	2012
Ibilgetua	42.050	35.311
Ibilgetu ukiezina	667	0
Ibilgetu materiala	41.383	35.311
Zirkulatzaila	346.786	220.472
Zordunak	286.217	189.377
Finantza-kontuak	60.569	31.095
Aktiboa, guztira	388.836	255.783

Pasiboa

Azalpena	2011	2012
Funts berekiak	3.245	3.245
Ondare eta erreserbak	3.245	3.245
Epe laburreko hartzekodunak	385.591	252.538
Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	385.591	252.538
Pasiboa, guztira	388.836	255.783

V.2.2. Galeren eta irabazien kontua 2012ko abenduaren 31n

Azalpena	2011	2012
Negozio-zifraren zenbateko garbia	1.429.182	1.374.494
Hornidurak	-147.496	-155.228
Langile gastuak	-1.059.594	-1.036.910
Bestelako ustiatze-gastuak	-215.176	-170.677
Ibilgetuaren amortizazioa	-6.893	-6.739
Beste emaitza batzuk	-38	-5.067
Ustiapeneko emaitza	-16	-126
Finantza diru-sarrerak	16	126
Finantza-emaitza	16	126
Ekitaldiko emaitza	0	0

VI. IZARBEIBARKO MANKOMUNITATEARI BURUZKO ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, ganbera honen aburuz Mankomunitateak jarraitu behar dituen ondorio nagusiak, bere antolaketa, prozedura, kontabilitate- eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK.

2013ko apirilaren 18an, Kontuen Batzordeak Mankomunitatearen 2012ko kontu orokorraren aldeko txostena eman zuen. Kontu hori 2013ko ekainaren 13an onetsi zuen Batzar Nagusiak.

Ez dago ondasunen inbentario eguneraturik, ibilgetu materialaren eta ez-materialaren kontabilitate-balioak oinarritzen dituenik.

Honako akatsak aurkitu dira diruzaintza-gerakina kalkulatzekoan:

- Aurreko urteetako saldo zordun batzuk badaude, Mankomunitateak aintzat hartutakoen gehigarriak direnak. Saldo horiek 16.408 euro egiten dute eta kobraezintzat jotzen dira; horrenbestez, bilketa zailekotzat jotako eskubideen zenbatekoa handituko lukete.

- Ixkitako aurrekontuen saldo hartzekodunei eusten zaie. 52.481 euro egiten dute, eta haien BEZa 7.427 eurokoa da. Daukaten antzintasuna dela-eta, preskribatuta daude.

- Saneamendu-kanona dela-eta NILSArekin izandako saldo hartzekoduna Mankomunitateak hiruhilekoko likidazioetan ordaindu beharreko zenbatekoa baino 11.860 euro handiagoa da.

Aurreko guztia dela eta, Mankomunitateak aurkeztutako diruzaintza-gerakinak 55.360 euro handiagoa izan behar zuen; aurreikusita dago 2013an behar diren zuzenketak egitea.

2012an, 440.544 euro erregistratu dira emaitza berezi gisa (galerak): 2011ko abenduaren 31n Nafarroako Foru Ogasunarekin zegoen saldo zorduna –itzuli beharreko BEZa zela eta– zuzentzeari dagokio. Saldoaren aldaketa hori Nafarroako Foru Ogasunak 2009-2011 aldiko –biak barne– eragiketari buruz egindako ikuskatzearen emaitza da.

Hartara, ikuskatzeak berarekin ezarri zuen jasandako BEZ kopuru bat, 575.037 eurokoa ez zela kengarria. Hiri hondakinen zerbitzuaren jarduerarekin lotutakoa zen kopuru hori, eta jarduera hori BEZetik salbuetsita dago. Zenbateko hori 134.494 euroan jaitsi zen, Arga Valdizarbe, SL zerbitzu-sozietateak Mankomunitateari eginiko fakturengatik. Izan ere, haietan ehuneko 16ko edo 18ko tasa orokorra aplikatzen zuen, tasa murriztua aplikatu beharrean. Egitate horren ondorioa izan zen sozietateak Mankomunitateari behar baino 134.494 euro gehiago kobratuak zizkiola eta kopuru hori, gero, Nafarroako Foru Ogasunari emana ziola.

Aurrekoa dela eta, erregularizatu beharreko amaierako BEZa 440.544 eurokoa zen, eta lotuta zegoen 2011n eta aurreko urteetan hiri hondakin solidoen zerbitzuaren jarduerako gastu eta diru-sarrerekin; hori dela eta, zuzenketaren zati handi batek inbertsioen zenbatekoa handitu beharko luke; nolana ere, zenbateko osoak ez du eraginik eduki behar emaitza ekonomikoaren egoeran.

Txosten hau idazteko egunean, ez dago auzirik Mankomunitatean modu nabarmenean eragin dezakeenik.

Hona gure gomendioak:

- *Inbentario bat egitea, behar adina informazio bilduta, ibilgetuaren kontusailak balantzean zuzen kontabilizatzeko; horrela, izan ere, emandako zerbitzuen kostuak kalkulatzeko behar den informazioa osatu ahalko da, haien zati egokiak diren tasa eta prezio publikoak ezartze aldera.*

- *Ixkitako aurrekontuetako saldo hartzekodunak eta saldo zordunak berrikustea, halako moduz non dauden guztiak kontuan hartuko diren eta soilik eutsiko zaie ordaintzeko betebeharra dakartenei eta indarrean dauden kobrantza-eskubideei.*

- *Kasuko erosketa-eragiketarako erregistratzerakoan kontuan hartu gabeko BEZa zuten inbertsioen zenbatekoa handitzea.*

VI.2. LANGILE GASTUAK

Langileei dagozkien gastuek 28.385 euro egin zuten, aurreikusitako aurrekontu-kredituen ehuneko 40, alegia. 2012ko ekitaldian sorrarazitako gastuen guztizkoaren ehuneko bat egiten dute.

Ondoren haren xehakapena ematen dugu, eurotan, bai eta 2011ko datuekiko alderaketa ere:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak		2012/2011 aldaketa (%)
	2011	2012	
10. Goi karguak	16.602	8.550	-49
12. Funtzionarioak	30.112	17.806	-41
13. Langile kontratudunak	12.971	0	--
16. Gizarte aseguruak, montepioko kuotak eta familia laguntza	14.555	2.029	-86
Guztira	74.240	28.385	-62

Langile-gastuek ehuneko 62 egin dute behera 2011koen aldean. Honakoak dira jaitziera horren arrazoiak:

- 2012ko otsailean, idazkari eta kontu-hartzailea zenak lanpostua utzi zuen. Hura beste toki entitate batzuetako idazkari batek eta kontu-hartzaile batek, Mankomunitatean zerbitzuak astean behin ematen dutenek, ordeztu zuten. Langile horien kostua txikiagoa da baja emandako pertsonaren kontratuarena baino.

- 2012an, batzorde iraunkorreko kideek ez dute, berez, soldatarik sortu. Haien ordaina batzorde eta batzar nagusietara joateagatik dietak izan dira. 2011n, ordea, lehendakariak soldata bat zuen eta kotizatu egiten zuen.

- 2012an ez da gizarteratzearen arloko langilerik kontratatu.

Gastu horien azterketaren arabera, indarrean dagoen araudia behar bezala betetzen da.

VI.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuak 1.621.878 eurokoak izan ziren, aurreikusitako kredituaren ehuneko 92, hain zuzen. 2012an guztira sortutako gastuen ehuneko 62 egiten dute eta 2011koen antzekoak dira (ehuneko 1,71ko gehikuntza dago).

Honakoak dira haiek osatzen dituzten kontzeptuak, eurotan adieraziak:

Kontzeptua	2011	2012	2012/2011 aldaketa (%)
Arga Valdizarbe, SL zerbitzu-sozietatea	1.282.535	1.389.507	8
Kaleetako erraztatze mekanizatua	113.049	114.298	1
Ingurumen hezkuntzari buruzko kanpaina	22.631	30.128	33
Errezuko ponpaketa	14.459	13.455	-7
Frankeatze-kontratua	11.424	13.015	14
Guztira	1.444.097	1.560.402	8

Ikus daitekeen bezala, kapitulu honetako gastuen ehuneko 89 Arga Valdizarbe, SL zerbitzu-sozietate partaidetzaduneari kontzentratzen da. Sozietate hori, izan ere, uraren ziklo integralaren zerbitzuen eta hiri hondakin solidoen bilketa- eta garraio-zerbitzuen kudeaketaz arduratzen da.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da berrikusitako gastuak onetsita, kontu-hartzaitzak aztertuta eta zuzen kontabilizatuta daudela.

VI.4. INBERTSIOAK

2012ko inbertsioak 959.527 eurokoak izan ziren, eta urte horretako guztizko gastuaren ehuneko 37 egiten dute. 2011koekin alderatuta, ehuneko 56 jaitsi dira.

Honakoak izan ziren 2012an egindako inbertsio nagusiak:

Inbertsioa	Zenbatekoa (euroak)
Edukiontzia garbitzeko kamioia	191.754
Berbintzanako biltegia egitea	159.066
Iruxo: San Roman kaleko sareak berritzea (1. fasea)	103.990
Garisoain: saneamendu sarea berritzea (1. fasea)	67.181
Biltegietan hobekuntzak egitea	66.396
Guztira	588.387

Kapitulu horretako gastuen lagin bat aztertu dugu, ondoko kontratazio-espeditentak barne:

Inbertsioa	.izitazio-prezioa, BEZa barne (eurotan)	Prozedura	Eskaintza kopurua	Esleipen-prezioa, BEZa barne (eurotan)	2012ko gastua
Edukiontzia garbitzeko kamioia	187.000	Irekia	4	187.000	191.754
Berbintzanako edateko uretarako biltegi erregulatzaila	353.911	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	3	352.141	159.066
Iruxo San Roman kaleko sareak berritzea, 1. fasea	118.456	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	3	118.431	103.990

Egiaztatu da ezen, orokorrean, hiruen kontratazio-, esleipen- eta exekuzio-espeditentak kontratuei buruzko legediaren arabera izapidetu direla. Halere, honakoa aipatu nahi genuke:

- Edukiontzia garbitzeko kamioiaren erosketari dagokionez: Hornidura 187.000 euroan esleitu zen (BEZa barne), baina 2012an kontabilizatutako gastua 191.754 eurokoa da, zeren eta ondasun hori emateko datan (2012ko iraila) BEZaren tasa ehuneko 21ekoa baitzen, esleipenaren datan indarrean zegoen ehuneko 18koaren partez.

Hornitzailea ondasuna entregatzerakoan atzeratzeak eragin du Mankomunitateak hornitzaileari 12.054 euroko kalte-ordaina eskatzea. Hornitzaileak kopuru hori ordaindu du.

Bai biltegiaren inbertsioan, bai sareen berritzeari dagokion inbertsioan, aurkitu dugu atzerapenak gertatu direla exekuzio-epeetan, hasiera batean kontratuetan aurreikusitakoan aldean. Halere, ez dago ez espedienterik, ez erabakirik epe horiek luzatzea berariaz onesten dutenik. Nolanahi ere, espedienteek harrera-akta dute, non ez baita aipatzen exekuzioan gorabeherarik izan denik; gure ustez, horrek esan nahi du Mankomunitateak tazituki atzerapen horiek onartzen dituela.

Gomendatzen dugu, inbertsioak exekutatzeko atzerapenak gertatzen badira, halakoak kasuko espedienteen justifikatzea, adierazita atzerapen hori berariaz onartzen dela, nagusiki inbertsioa esleitzeko irizpidea epea izen den kasuetan.

VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2012ko diru-sarrerak 3.759.949 eurokoak izan ziren. Honakoak dira diru-sarrerak osatzen dituzten kapitulu nagusiak: Tasa, prezio publiko eta bestelako diru-sareren ehuneko 45; finantza-aktiboen salmentarengatik ehuneko 24, eta kapital-transferentziengatik ehuneko 22.

VI.5.1. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak

Kapitulu honetako diru-sarrerak 1.684.529 euro egiten dute, eta diru-sarrera guztien ehuneko 34 egiten dute.

Diru-sarrera horiek nagusiki dagokie uraren ziklo integralaren zerbitzuko eta hiri hondakinen zerbitzuko erabiltzaileei egindako fakturazioei, eta 1.666.380 euro egiten dute. 2012an, gora egin dute erabiltzaileen ordainketetan izandako atzerapenengatik errekaruak eta, gainera, diru-sarrera gehigarri batzuk badaude, esleipen-hartzaileari edukiontzia garbitzeko kamioi baten hornikuntzan izandako atzerapenarengatik.

Tasak Batzar Nagusiak onetsi ditu eta NAOn argitaratu dira. Egiaztatu da zuzen aplikatu direla.

VI.5.2. Transferentzia arruntak eta kapitalekoak

Diru-sarrera horiek 1.168.037 eurokoak ziren, eta 2012an aitortutako eskubide guztien ehuneko 31 egiten zuten. Horietatik, 840.231 euro kapital-transferentzietan dagokie eta 327.806, berriz, transferentzia arruntei.

Kapital-transferentziak Nafarroako Gobernutik inbertsio errealak finantzatzeko jasotako diru-laguntzak dira.

Transferentzia arruntei dagokienez, honakoak nabarmendu behar ditugu, beren zenbatekoa dela eta:

Azalpena	2011	2012	Aldearen ehunekoa 2012/2011
Udalen ekarpena, kaleetako ezkoztatze mekanizaturako	113.049	114.298	1
Ecoembesen diru-laguntza, ontziak direla eta	0	67.085	--
Ecoembesen diru-laguntza, papera eta kartoia direla eta	0	20.320	--
Partzuergoaren diru-laguntza, hondakinak eramateari dagokiona	73.177	100.785	38
Guztira	186.226	302.486	62

Ikusten den bezala, transferentzia arruntaren ehuneko 62 Mankomunitateak egiten dituen zerbituetatik lortutako diru-sarrei dagozkie: kaleetako ezkoztatze mekanizaturako, udalentsat egiten dena, eta paperaren, kartoien eta ontzien bilketa- eta garraio-zerbitzua, Ecoembalajes Españarentzat (Ecoembes) egiten dena –ontzien berreskuratzea eta birziklatzea kudeatzen dituen enpresa da–.

Gomendatzen dugu diru-sareren 3. kapituluaren erregistratzea udalei eta Ecoembesi emandako zerbitzuak.

VI.5.3. Bestelako diru-sarrerak

Mankomunitateak 2012an aitortutako gainerako diru-sarrerak 907.383 eurokoak dira, eta ekitaldiko gutzitakoaren ehuneko 24 egiten dute. Horietatik, 889.612 euro inbertsio-funts bat kitatu izateari dagozkio, eta gainerakoa, 17.771 euro, ondare-bidezko diru-sarrei dagokie.

Inbertsio-funtsaren kitatzea zatika egin zen: hasiera batean, otsailean, 400.000 euro kitatu ziren (epe finkoko ezarpen baterako erabili zen), eta 5.426 euroko gainbalioa lortu zen; gainerakoa, 484.926 euro, ekainean kitatu zen –kasu horretan, 10.112 euroko galera izan zen–. Beste-erentze hori 889.612 euroko zenbatekoarekin kontabilizatu zen finantza-aktiboen 8. kapituluan, eta 4.686 euroko galera garbiarekin finantza-gastuen 3. kapituluan.

Gomendatzen dugu gastuak eta diru-sarrerak ez konpentsatzeko printzipioa aplikatzea eta eragiketa bakoitza banaka kontabilizatzea, lortutako irabazia edo galera jasota utzita.

VII. ARGIA VALDIZARBE, SL ZERBITZU-SOZIETATE PUBLIKOARI BURUZKO ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

2012ko ekitaldiari buruzko kontabilitate-informazioaren gainean egindako azterketan, honakoak aurkitu ditugu:

- Gastu nagusiak langile-gastuak dira (23 pertsona plantillan eta milioi bat euroko kostua), hiru garrenen lanak (257.255 euro) eta materialen erosketa (67.775 euro). Materialen salmentaren ondoriozko diru-sarrerak jasotzen ditu (35.000 euro 2012an) eta Mankomunitateari behar den zenbatekoko fakturak egiten dizkio (1,3 milioi euro 2012an), gastuak estaltzeko eta emaitza nulua izateko.

- Egiaztatu da langile-gastuak zuzen kalkulatu eta kontabilizatuta daudela.

- Aktibo nagusiak honakoei dagozkie: ibilgetu materiala, Mankomunitatetik kobratzeko dauden fakturengatik kobratu beharreko kontuak eta banku-kontuetako saldoak. Pasiboak honakoei dagozkie: hornitzaileei eta merkataritza-hartzekodunei erosketengatik eta zerbitzuengatik ordaindu beharreko saldoak, eta langileekiko eta administrazio publikoekiko zorrak (Ogasunari PFEZarengatik eta BEZarengatik, eta langileen gizarte-aseguruak).

- Ondare garbia 3.245 eurokoa da, eta kapital soziala, berriz, 3.005 eurokoa. Kopuru txikia da negozio-zifrarri (1,4 milioi euro 2012an) eta ibilgetuaren kontabilitate-balioari (35.000 euro 2012ko abenduaren 31n) erreparatuz gero. Hori dela eta, pasibo korrontea aktibo korrontea baino handiagoa da. Ez du banku-zorpetzerik.

Sozietateak enpresa txiki eta ertainentzako ereduaren arabera aurkezten ditu urteko kontuak. Haien aztertuta, ikusten da oroitidazki laburtuak zenbait alderdi ez dituela jasotzen; esate baterako, loturadun alderdiekiko eragiketak.

Egindako lanean agerian jarri dira ibilgetu materialarekin, izakinekin eta eragiketa batzuen kontabilizatzearekin zerikusia duten zenbat inguruabar, aipagarriak ez direnak. Halakoek eraginen lukete aktiboa 9.807 euroan gutxitzea, pasiboa 866 euroan handitzea eta ondare garbia 10.673 euroan jaitea (horietatik, 1.285 euro ekitaldiko emaitzara joanen lirake).

Gomendatzen dugu oroitidazkian sartzea araudi indardunak eskatzen duen informazio aipagarri guztiak.

VIII. GESTERLAR SIGLO XXI, SL SOZIETATEARI BURUZKO ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Sozietateak gaur egun ez du jarduerarik eta eratu ere gabe dago. Hori dela eta, nortasun juridikorik ez du.

Mankomunitateak adierazitakoaren arabera, interesa dago sozietate horren oinarrian dagoen proiektuarekin jarraitzeko, eta aurreikusita dago egiteko dauden izapideak osatzea hura Nafarroako merkataritza-erregistroan inskribatzeko.

Gomendatzen dugu aztertzea ea formularik egokiena den Hondakinen Kudeaketarako Zentroa kudeatzeko sozietate bat sortzea, kontuan izanda zerbitzu hori Mankomunitateak berak zuzenean eman dezakeela.

Txosten hau auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

